



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko azaroaren 16a

30. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, alderdi politikoei 1.390.291,72 euroko kreditu berezia ematekoa, Nafarroako Parlamenturako 2011ko hauteskundeetako gastuak finantzatzeko dirulaguntza gisa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Itzuliak Nafarroan eginen dituen bi etapen finantzaketa mistoa –publikoa eta pribatua– izan dadin. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bultzada berria eman diezaion zerga-iruzurraren aurkako borrokari. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Castejonon DBHko bigarren zikloko ikasketak ezar ditzan pixkanaka. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berresten du erkidego osoko bidaiarien garraio publikoaren aldeko konpromisoa. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan, zama eta baliabide fiskalen birbanaketa handiagoa eta hobe lortzeko bidean aurrera egite aldera. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sozietateen gaineko zergaren itzulketa egin dadin aitorpena aurkeztu eta hiru hilabeteko epean. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan Iruñerriko frekuentzia gehiago lortze aldera. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan neurririk edo konpromiso publikorik har hondakinen errausketa-sistema ezartzeari dagokionez. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten du Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren jardun politikoa, 2011rako Nafarroako aurrekontu orokorrekin eginiko kudeaketarengatik. Osoko Bilkurak bazter utzia (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroaren aniztasuna errespetatzearen aldeko hautua egiten du. Osoko Bilkurak bazter utzia (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du udalei transferitu beharreko funtsetan edozein murrizketa egitea. Mozioa erretiratzea (8. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Kutzak Banca Cívican duen partaidetzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, jakiteko asmorik ba ote den ondareari buruzko zerga ezartzeko legegintzaldi honetan. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, jakiteko ea zergatik ez diren jakinarazi gastu eta diru-sarrera fiskalek bigarren hiruhilekoan izandako bilakaerari buruzko datuak. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, alderdi politikoei 1.390.291,72 euroko kreditu berezia ematekoa, Nafarroako Parlamenturako 2011ko hauteskundeetako gastuak finantzatzeko dirulaguntza gisa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2011ko azaroaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, Foru Lege bat onetsi zuen, alderdi politikoei 1.390.291,72 euroko kreditu berezia ematekoa, Nafarroako Parlamenturako 2011ko hauteskundeetako gastuak finantzatzeko dirulaguntza gisa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2011ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, alderdi politikoei 1.390.291,72 euroko kreditu berezia ematekoa, Nafarroako Parlamenturako 2011ko hauteskundeetako gastuak finantzatzeko dirulaguntza gisa

Nafarroako Parlamentuko hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeak 44. artikuluan ezarri duenaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak dirulaguntzak emanen dizkie alderdi politiko, federazio, koalizio eta hautesle-elkarteei, hauteskundeetako gastuak finantzatzeko.

Foru lege beraren 48. artikulua xedatutakoaren arabera, Nafarroako Gobernuak, Comptos Ganberak hauteskundeetako kontabilitateei buruzko txostena igorri eta ondoko hilabetean, foru lege

baten proiektua aurkeztuko dio Nafarroako Parlamentuari, esleitu beharreko dirulaguntzen zenbatekoa adinako kreditu berezia emateko; dirulaguntza horiek Parlamentuak proiektua onetsi eta ondoko hogeita hamar eguneko epean ordaindu beharko dira.

Foru lege honen xedea da indarra duen hauteskunde araudian ezarritako agindua betetzea, 2011ko maiatzaren 22an Nafarroako Parlamenturako egindako hauteskundeek sortutako gastuak finantzatzeko.

1. artikulua. 1.390.291,72 euroko kreditu berezia ematea onetsi da, alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-elkarteentzako dirulaguntza gisa, 2011ko maiatzaren 22an Nafarroako Parlamenturako egindako hauteskundeek sortutako gastuak finantzatzeko. Aipatu kredituaren zenbatekoa 2011ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Alderdi politikoentzako dirulaguntzak" izeneko 010001-00001-4819-912100 kontu-sailari aplikatuko zaio.

2. artikulua. Kreditu berezi hori finantzatuko da 2011ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Estaturako ekarpena" izeneko 16100 160000 4000 941100 kontu-sailaren diru-sarreraren handiagotzearen kontura.

Azken xedapena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2011ko azaroaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako Nafarroako Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

Proposamen hori 2011ko irailaren 23ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2011ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Itzuliak Nafarroan eginen dituen bi etapen finantzaketa mistoa –publikoa eta pribatua– izan dadin.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2011ko azaroaren 10ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Itzuliak Nafarroan eginen dituen bi etapen finantzaketa mistoa –publikoa eta pribatua– izan dadin”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2011ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Itzuliak Nafarroan eginen dituen bi etapen finantzaketa mistoa –publikoa eta pribatua– izan dadin

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Itzuliak Nafarroan eginen dituen bi etapen finantzaketa mistoa –publikoa eta pribatua– izan dadin eta baliabideak atzemateko esparru eraginkor bat susta dadin, ahal den diru publiko gutxiena gastatzen dela sustatzeko eta ziurtatzeko.

Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bultzada berria eman diezaion zerga-iruzurraren aurkako borrokari.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2011ko azaroaren 10ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bultzada berria eman diezaion zerga-iruzurraren aurkako borrokari”. Horren jatorria da Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2011ko urriaren 14ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2011ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bultzada berria eman diezaion zerga-iruzurraren aurkako borrokari

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bultzada berria eman diezaion zerga-iruzurraren aurkako borrokan egindako lanari eta optimizatzen jarrai dezan eskueran dituen baliabide guztiak, iruzurra ahal den guztia desagerrarazteko eta herritarren sentsibilizazioa sendotzeko.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Castejonen DBHko bigarren zikloko ikasketak ezar ditzan pixkanaka.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Marisa De Simón Caballero andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Castejonen DBHko bigarren zikloko ikasketak ezar ditzan pixkanaka."

Legebiltzarrak, 2011ko azaroaren 10ean egin-dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2011ko urriaren 7ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2011ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berresten du erkidego osoko bidaiarien garraio publikoaren aldeko konpromisoa.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berresten du erkidego osoko bidaiarien garraio publikoaren aldeko konpromisoa."

Legebiltzarrak, 2011ko azaroaren 10ean egin-dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2011ko urriaren 7ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2011ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan, zama eta baliabide fiskalen birbanaketa handiagoa eta hobea lortzeko bidean aurrera egite aldera.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Bildu-Nafarroa parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan, zama eta baliabide fiskalen birbanaketa handiagoa eta hobea lortzeko bidean aurrera egite aldera."

Legebiltzarrak, 2011ko azaroaren 10ean egin-dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2011ko urriaren 7ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2011ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sozietateen gaineko zergaren itzulketa egin dadin aitortpena aurkeztu eta hiru hilabeteko epean.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sozietateen gaineko zergaren itzulketa egin dadin aitortpena aurkeztu eta hiru hilabeteko epean"

Legebiltzarrak, 2011ko azaroaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2011ko urriaren 7ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2011ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan Iruñerrirako frekuentzia gehiago lortze aldera.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan Iruñerrirako frekuentzia gehiago lortze aldera"

Legebiltzarrak, 2011ko azaroaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2011ko urriaren 14ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2011ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan neurririk edo konpromiso publikorik har hondakinen errausketa-sistema ezartzeari dagokionez.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan neurririk edo konpromiso publikorik har hondakinen errausketa-sistema ezartzeari dagokionez"

Legebiltzarrak, 2011ko azaroaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2011ko urriaren 14ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2011ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten du Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren jardun politikoa, 2011rako Nafarroako aurrekontu orokorrekin eginiko kudeaketarengatik.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Izquierda-Ezkerra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten du Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren jardun politikoa, 2011rako Nafarroako aurrekontu orokorrekin eginiko kudeaketarengatik."

Legebiltzarrak, 2011ko azaroaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2011ko urriaren 14ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2011ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroaren aniztasuna errespetatzearen aldeko hautua egiten du.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Bildu-Nafarroa parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroaren aniztasuna errespetatzearen aldeko hautua egiten du."

mozioa baztertzea. Mozio hori 2011ko azaroaren 4ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2011ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du udalei transferitu beharreko funtsetan edozein murrizketa egitea.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2011ko azaroaren 10ean egindako bileran, erabaki zuen adieraztea jakinaren gainean dagoela Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du udalei transferitu beharreko funtsetan edozein murrizketa egitea.

Mozio hori 2011ko urriaren 7ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2011ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Kutzak Banca Cívican duen partaidetzari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Manu Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du Nafarroako Kutzak Banca Cívican duen partaidetzari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manuel Ayerdi Olaizola jaunak galdera

egin du Banca Cívica burtsara ateratzeari buruz (PES-00046). Hona hemen Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

1.- Galderan aipatzen diren akzioak Nafarroako Aurrezki Kutzaren jabetza eta titulartasunekoak dira.

2.- Nafarroako Aurrezki Kutzako Administrazio Kontseiluari dagokio, betiere, galdera horri erantzutea.

3.- Nafarroako Gobernuak ez da Banca Cívica-ko bazkide.

Iruñean, 2011ko urriaren 1ean

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, jakiteko asmorik ba ote den ondareari buruzko zerga ezartzeko legegintzaldi honetan.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Beltrán Villalba andreak galdera egin du jakiteko asmorik ba ote den ondareari buruzko zerga ezartzeko legegintzaldi honetan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuaren aurrekontuen betetze-mailari buruzko datuak argitaratzeari buruz (PES-00048). Hona hemen erantzuna.

Azken foru hauteskundeak egin eta Gobernuaren eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren egituraketa berria osatu ostean, aipatu informazioa Nafarroako Parlamentura igorri zen, 2011ko abuztuaren 5ean.

Iruñean, 2011ko urriaren 1ean

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, jakiteko ea zergatik ez diren jakinarazi gastu eta diru-sarrera fiskalek bigarren hiruherilekoan izandako bilakaerari buruzko datuak.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du jakiteko ea zergatik ez diren jakinarazi gastu eta diru-sarrera fiskalek bigarren hiruherilekoan izandako bilakaerari buruzko datuak.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuaren aurrekontuen bete-tze-mailari buruzko datuak argitaratzeari buruz (PES-00048). Hona hemen Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna.

Azken foru hauteskundeak egin eta Gobernuaren eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren egituraketa berria osatu ostean, aipatu informazioa Nafarroako Parlamentura igorri zen, 2011ko abuztuaren 5ean.

Iruñean, 2011ko urriaren 1ean

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

